

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE  
BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### I. MEMORIA

Zerbitzu Orokorrak izeneko programak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskuduntzetan barne hartuta dauden zentro, zerbitzu eta programen funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren euskarri operatibo guztiak modu zentralizatuan kudeatzen ditu. Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritzaren jarduerarekin zuzenean erlazionatuta, programa horrek Erakunde Autonomoaren jarduera egokia bermatzen du.

Honakoak daude programa horretan: Zuzendaritza Gerentzia, Ekonomiaren eta Aurrekontuen Arloko Zuzendariordetza Teknikoa, Langileria Arloko Zuzendariordetza Teknikoa, Antolakuntza eta Informatika Arloko Zuzendariordetza Teknikoa, eta Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritzako Buruzagitza.

Zuzendaritza Gerentziak erakundearen programetan garatu beharreko funtzioen eta helburu propioen zuzendaritza, antolaketa eta ikuskapena gauzatzeko funtzioak barne hartzen ditu.

Ekonomiaren eta Aurrekontuen Arloari dagokionez, kontrol ekonomikoari eta aurrekontuaren kontrolari buruzko jarduerak gauzatu dira, gastu eta sarreretako dokumentuen fiskalizazioa eta kontabilitate erregistroa egin da, eta beharrezkoak diren aurrekontu aldaketa guztien izapideak eta kontrola eta Erakunde Autonomoaren kontuen likidazioa egin dira. Hilean behin aurrekontuaren gauzatzeko egoerari buruzko informazioa eman zaie gastuak kudeatzen dituzten zentro guztiei, bai eta zuzendaritzari ere, jakinararen gainean egon daitezten eta horren arabera jardun dezaten.

Langileria Arloko Zuzendariordetza Teknikoari dagokionez, Lanpostuen Zerrenda aldatu zen, hau da, 67 lanpostu berri sortu ziren; horrenbestez, gaur egun 1.038 langilek osatzen duten Lanpostuen Zerrenda. Diputatuen Kontseiluak otsailaren 12an emandako 10/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen LPZ berria. Beharrezko negoziazioaren ondoren,

#### I. MEMORIA

El programa denominado de Servicios Generales gestiona de forma centralizada la práctica totalidad de los soportes operativos que se hacen necesarios para el correcto funcionamiento de los Centros, Servicios y Programas integrados en el terreno competencial del Instituto Foral de Bienestar Social; en permanente interrelación con la actividad de la Secretaría de Servicios Sociales, el programa es garante de la correcta actuación del Organismo Autónomo.

Integran este programa la Dirección-Gerencia, la Subdirección Técnica del Área Económica y Presupuestaria, la Subdirección Técnica del Área de Personal, la Subdirección Técnica del Área de Organización e Informática y la Jefatura de la Secretaría de Servicios Sociales.

La Dirección-Gerencia ha desarrollado las funciones de dirección, organización y supervisión de las funciones y los objetivos propios a desarrollar en los programas de la Institución.

En lo relativo al Área Económico y Presupuestaria, se han desarrollado las funciones de Control Económico y Presupuestario, realizándose la fiscalización y registro contable de los documentos de gastos e ingresos, la tramitación y control de todas las modificaciones presupuestarias necesarias y la liquidación de cuentas del Organismo Autónomo. Con periodicidad mensual se ha remitido información del estado de ejecución del presupuesto a todos los centros gestores de gastos, así como a la Dirección para conocimiento y consiguiente actuación.

En lo concerniente a la Subdirección Técnica del Área de Personal, se modificó la Relación de Puestos de Trabajo con la inclusión de 67 nuevos puestos que configuran los 1.038 efectivos de que está dotada, siendo aprobada la nueva RPT mediante Decreto Foral 10/2.008, del Consejo de Diputados de 12 de febrero. Después de la correspondiente negociación, el

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

Diputatuen Kontseiluak -117/2008 Foru Dekretuaren bidez- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileen 2008rako ordainsari igoera onartu zuen. Ekitaldian zehar 2006ko EPEko deialdietako hautaprobak egiten jarraitu zen.

Antolakuntza eta Informatika Arloari dagokionez, Adinekoen Arloaren landa zonako egoitzetan zentro horien erabiltzaileak kudeatzeko sistema ezarri da.

Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritzak jarraitu du pertsonen eta taldeek gizarte zerbitzuen esparruan dituzten premiak ikertzen, eta ekitaldi honetan gai honi buruzko txostenak dira aipagarriak: 39/2006 Legeak Arabako LHn duen aplikazioa eta talde bereziek dituzten arazoak.

Ezinduen Arloan “Kalitateko Barne Bermearen” prozesuak ezartzeko ildoari eutsi zaio; horretarako ezinduen arlorako Jardunbide Onen gaineko Gidaliburuak egin dira. Era berean, Adingabeen eta Familiaren Arloko programen ebaluazioari buruzko zenbait txosten egin dira.

2008ko ekitaldian, Arabako Lurralde Historikoko Gizartegintzan Etika Batzordea sortzea diseinatu zen, GOFeko arlo guztietako profesionalek osatzen dutela. Horren talde sustatzailea 2008. urte bukaeran eratu zen.

IVAPekin lankidetzan GOFeko langileen prestakuntza beharrei buruzko diagnostikoa egiten amaitu da, eta urteko Prestakuntza Plana egin da. Era berean, gizarte zerbitzuen eremuan lan egiten duten Arabako beste erakunde batzuek prestakuntza jarduerak egin ditzaten diruz lagundu da (deialdi publiko baten bidez), eta etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen duten erakundeentzako eta adinekoen egoitza pribatuentzako laguntza lerroari eutsi zaio, langileak Alzheimer edo beste gaitz batzuekin zerikusia duten gaietan prestatzeko.

Arabako LHko Gizarte Zerbitzuen Behatokia diseinatu da. Zerbitzuak planifikatzeko tresna da, eta Interneteko atari baten bidez herritarrei Arabako gizarte zerbitzuen sareari buruzko informazio guztia

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

Consejo de Diputados -mediante Decreto Foral 117/2.008- aprobó el incremento de las retribuciones para el año 2.008 del personal al servicio del I.F.B.S. Durante el ejercicio se continuó con los procesos selectivos correspondientes a las convocatorias de la OPE 2.006.

En el Área de Organización e Informática, se ha implantado en las residencias del Área de Personas Mayores de la zona rural un sistema de gestión de las personas usuarias de dichos centros.

La Secretaría de Servicios sociales, ha continuado la línea de investigación de necesidades de las diferentes personas y colectivos en materia de servicios sociales, destacando en el ejercicio la realización de diferentes informes sobre temas relacionados con la aplicación en el TH de Álava de la Ley 39/2006 y sobre las problemáticas que afectan a colectivos específicos.

Se ha continuado la línea de implantación de procesos de “Garantía Interna de Calidad”, en el Área de Discapacidad, con la elaboración de Guías de Buena Práctica en el ámbito de la discapacidad. Así mismo, se han realizado varios informes de evaluación de los programas del Área del Menor y Familia.

Durante el ejercicio 2008 se diseñó la creación de un Comité de Ética Asistencial en Intervención Social del TH de Álava, con participación de profesionales de todas las áreas del IFBS, constituyéndose el Grupo Promotor del mismo a finales de año.

Se ha finalizado el Diagnóstico de Necesidades Formativas de la plantilla del IFBS, en colaboración con el IVAP, desarrollándose el Plan de Formación anual. Así mismo se ha apoyado económicamente (a través de convocatoria pública) la realización de actividades formativas por parte de diferentes entidades alavesas que colaboran en el ámbito de los servicios sociales, consolidándose también la línea de ayudas a las entidades prestatarias de SAD y a residencias privadas de personas mayores, para la formación de su plantilla en temas relacionados con la enfermedad de Alzheimer y otras demencias.

Se ha diseñado el Observatorio de Servicios Sociales del TH de Álava, herramienta para la planificación de los servicios, consistente en un portal en Internet desde el que se ofrece a la ciudadanía toda la

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

eskaintzen zaie. Egun dauden gizarte baliabideei buruzko liburuxkak diseinatu dira eta Gizarte Zerbitzuen jardun eremuarekin zerikusia duten argitalpen ugari kaleratu dira.

Sailak dituen agirien datu-baseak gaurkotuta eduki dira, eta saileko teknikariei eta gizarte zerbitzuen arloan eskumena duten Arabako erakundeei agiri horiek kontsultatzeko lana erraztu zaie.

### **II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA**

#### **1. Administrazio Kontseiluak GOFEn helburua lortzeko onartzen dituen erabakiak, planak eta programak bultzatzea eta garatzea, eta horretarako ekintzak koordinatuta gauzatzea, kalitatea, parte hartzea eta kudeaketaren autonomia irizpidetzat hartuta.**

- Erakundearen premia operatiboen arabera, Administrazio Kontseiluak 31 bilkuretarako deia egin eta bilkurak egin zituen. Horietako 11 ohiko bilkurak izan ziren; ohiz kanpokoak, 30. Deitutako bilerak egokiak izan dira Erakundearen funtzionamenduaren benetako premietarako.

#### **2. Ekonomia eta finantzak kontrolatzea, bai eta arloen kudeaketa eta kostuen zentroak ere, ekonomia edukia duten obligazio eta eskubideak onartzea dakarten egintzei dagokienez, esate baterako kobrantza eta ordainketak; hori guztia aurrekontua egiten denetik azkenik kitatzen den arte.**

- Aurrekontuetan izan diren aurrekontuko zein aurrekontuz kanpoko eragiketa guztien fiskalizazioa eta kontabilitate erregistroa egin da, baita ondare kontabilitatearena ere.
- Aldundiko Kontuhartzailtza Zerbitzuarekin koordinatuta, honako enpresariak izapidetu dira, alde aurretik kontu hartzea egiteko: erosketa eta hornidurak, sei mila eurotik gorako dirulaguntzak, hitzarmenak, laguntzen deialdi

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

información sobre la red alavesa de servicios sociales. Se han diseñado diferentes folletos informativos sobre los recursos sociales existentes y se han editado diversas publicaciones relacionadas con el ámbito de actuación de los Servicios Sociales.

Se han mantenido actualizadas las bases de datos documentales con que cuenta el Departamento, facilitando su consulta al personal técnico del mismo y a las entidades alavesas competentes en el campo de actuación de los servicios sociales.

### **II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

#### **1. Impulsar y desarrollar los Acuerdos, Planes y Programas aprobados por el Consejo de Administración para la consecución de la misión del IFBS, ejecutando las acciones coordinadamente, con criterios de calidad, participación y autonomía en la gestión.**

- En función de las necesidades operativas del Instituto se han convocado y tuvieron efecto 31 reuniones del Consejo de Administración, 11 de ellas de carácter ordinario y 30 de carácter extraordinario. Las sesiones convocadas han sido las adecuadas a las necesidades reales de funcionamiento del Instituto.

#### **2. Control Económico-Financiero y de Gestión de Áreas y Centros de Coste en lo relativo a los actos que den lugar al reconocimiento de derechos y obligaciones de contenido económico, tanto cobros como pagos, desde la elaboración del presupuesto hasta su liquidación final.**

- Se ha efectuado la fiscalización y registro contable de todas las operaciones habidas en la ejecución de los presupuestos, tanto operaciones presupuestarias como operaciones extra-presupuestarias, así como de la contabilidad patrimonial.
- En coordinación con el Servicio de Intervención de Diputación se han tramitado, para su intervención previa, todos los expedientes de Compras y Suministros, Subvenciones superiores a seis mil euros, Convenios,

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

publikoa eta lehiaketa publikoak eta haien ebazpenak.

- GOFeren Kudeaketa Arloekin lankidetzan jardunez, 2008rako aurrekontuaren proiektua gauzatu zen eta partiden jarraipena eta kontrola egin da. Halaber, beharrezkoak diren aurrekontu transferentzia eta kreditu gaikuntzen izapideak egin dira, baita aurrekontuaren likidazioa ere.
- Diruzaintzako saldo erabiligabeak ahalik eta gehien murrizteko asmoz, hirugarrenentzako hileko ordainketa obligazioak (zerbitzu eta hornidurengatik edo transferentzia arruntengatik edo kapital transferentziengatik) garaiz gauzatu dira, Arabako Foru Aldundiko Finantza Kudeaketa Zerbitzuarekin koordinatuta, hileko funts horniduren bitartez.

### 3. Sistemak hobetzea, hala nola, egitura antolamenduaren sistema, prozesuak definitzeko sistema, lan kargak banatzeko sistema, bai eta informatika tresnak erabiltzeko sistema ere.

- Langileak euskalduntzeko prozesuarekin jarraitzearen ondorioz, ekitaldiaren amaieran 170 hizkuntza eskakizun egiaztatu dira guztira, derrigortasun datadun lanpostuetarako. Bestalde, beste 6 pertsonak hizkuntza eskakizuna derrigortasun datarik gabeko lanpostuetan daukate egiaztatuta, eta hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten beste bost pertsona gaur egun eszedentzian daude.
- Adinekoen Arloaren landa zonako egoitzetan (Samaniego, Oion, Agurain, Laudio eta Amurrio), zentro horien erabiltzaileak kudeatzeko sistema ezarri da.
- GOFeko zentro guztietan banda zabaleko konexioa ipini da, eta horren ondorioz, informazio sistemen funtzionamendua nabarmen hobetu da.
- Beregaintasuna sustatzeko eta mendekotasun egoeran bizi diren pertsonen laguntzeko sistemari buruzko datuak igortzeko sistema abiarazi da.

### 4. Ondasunen erosketaren eta hornidura eta

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE  
BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

Convocatoria Pública de Ayudas y Concursos Públicos y sus Resoluciones respectivas.

- En colaboración con las Áreas de Gestión del IFBS, se elaboró el proyecto de Presupuesto 2.008 y se ha realizado el seguimiento y control de sus partidas, tramitándose las transferencias presupuestarias y Habilitaciones de Crédito necesarias, así como la liquidación.
- Tratando de reducir al mínimo los saldos ociosos de Tesorería, se han atendido puntualmente las obligaciones mensuales de pago a terceros (por servicios y suministros o por transferencias corrientes o de capital) en coordinación con el Servicio de Gestión Financiera de Diputación, mediante las provisiones de fondo mensuales.

### 3. Mejora de los diferentes sistemas en lo que se refiere a organización estructural, definición de procesos, distribución de cargas de trabajo y utilización de herramientas informáticas.

- Como consecuencia del mantenimiento del proceso de Euskaldunización del Personal, al final del ejercicio la cifra de perfiles acreditados en puestos con preceptividad vencida ascendía a 170. Además, otras 6 personas tienen acreditado el perfil en puestos sin fecha de preceptividad y otras cinco personas, habiendo acreditado el perfil, se encuentran actualmente en situación de excedencia.
- Se ha implantado en las residencias del Área de Personas Mayores de la zona rural (Samaniego, Oion, Salvatierra, Llodio y Amurrio) un sistema de gestión de las personas usuarias de dichos centros.
- Se han conectado todos los centros del IFBS mediante conexiones de banda ancha lo que permite mejorar notablemente el funcionamiento de los distintos sistemas de información.
- Se ha establecido un sistema de envío periódico de datos relativos al Sistema para la autonomía y Atención a la dependencia .

### 4. Mejora en la gestión centralizada de

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

**zerbitzuen lehiaketa bidezko kontratazioaren kudeaketa zentralizatua hobetzea; ahalik eskaintza gehien izatea izango da xedea.**

- Ekitaldi honetan modu orokorrean aplikatu da hornidurak, zerbitzuak eta zerbitzu publikoen kudeaketa lehiaketa publikoen bitartez esleitzeko prozedura, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak ezartzen duen bezala (Herri Administrazioen Kontratuak buruzko Legearen testu bateratua onartzen duena). Zenbait espedienteren luzapenak onartu dira, kontratu luzapenen bidez. Hona hemen zein diren: Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko espedienteenak, Zerbitzuak Egiteko espedienteenak eta Hornidurako espedienteenak (Osasun arloko materiala, elikagaiak eta garbiketako produktuak).
- Horrez gain, hainbat kontratazio espediente berri izapidetu da, bai Zerbitzu Publikoko Kudeaketakoak bai Zerbitzu eta Hornidurakoak; hori guztia kontratu egokien bidez egin da.
- Espediente txikietarako eskaintza kopururik handienaren irizpidea mantendu da, prezioa eta kalitatea aztertuta.

### **5. Foru Erakundearen giza baliabideak kudeatzea, langile funtzionarioen izendapenak eta lan kontratuko langileen kontratazioak proposatzea, eta GOFeren laneko segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa sustatzea.**

- 2008ko abuztuaren 27ko 97. ALHAOn, honakoa argitaratu zen: 82/2008 Foru Dekretua, uztailaren 31ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Lanpostu Zerrenda onartzen da. Erabaki horretan agertzen dira 31/2007 Foru Dekretuan egindako aldaketa guztiak.
- 2006ko ekitaldirako Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagokionez, aipatu behar da kalifikazio epaimahaien funtzionamendu arruntarekin zerikusirik ez duten beste arrazoi batzuegatik ez dela 2008ko ekitaldian bukatu

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

**adquisiciones de bienes y contratación de Suministros y Servicios, mediante Concursos Públicos, contrastando máxima concurrencia de ofertas.**

- Durante este ejercicio se ha aplicado, de forma generalizada, el procedimiento de adjudicación de Suministros, Servicios y Gestión de Servicios Públicos, mediante el sistema de Concurso Público tal y como establece el Real Decreto Legislativo 2/2.000 de 16 de Junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. Se han aprobado prórrogas de expedientes de Gestión de Servicios Públicos, de expedientes de Prestación de Servicios y de expedientes de Suministros de diversos artículos de Material Sanitario, Productos Alimentación y Productos de Limpieza, a través de las prórrogas de sus correspondientes contratos.
- Además, se han tramitado diferentes expedientes nuevos de contratación, de Gestión de Servicio Público, de Servicios y de Suministros, a través de sus respectivos contratos.
- Para los expedientes menores, se ha mantenido el criterio de máxima concurrencia de ofertas con análisis de precio y calidad.

### **5. Gestionar los recursos humanos del Organismo Autónomo proponiendo los nombramientos de personal funcionario/a y las contrataciones laborales e impulsar la gestión de la seguridad y salud laboral en el IFBS.**

- En el B.O.T.H.A. nº 97, de 27 de agosto de 2.008, se publicó el Decreto Foral 82/2.008 del Consejo de Diputados de 31 de julio, que aprobó la nueva Relación de Puestos de Trabajo, incluyendo todas las modificaciones efectuadas al Decreto Foral 31/2.007.
- Respecto a la Oferta de Empleo Público para el ejercicio 2.006, cabe señalar que, por razones ajenas al normal funcionamiento de los Tribunales Calificadores, en el ejercicio 2.008 no ha finalizado ningún proceso selectivo de las

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

hautaketa prozesu bat ere.

- GOFeko baldintzak arautzen dituen Erabakiaren eta INDESAREN 2008-2011 epealdirako hitzarmen kolektiboaren negoziazioari dagokionez, azpimarratu behar da azken hori - ekitaldiaren amaieran- ia biribilduta zegoela eta sinatzea bakarrik falta zela.
- Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, GOFEn eta INDESAn, 2008. urterako aurreikusitako jarduerak egin dira:
  - Prebentzioko ordezkariak eta funtzionarioak zein lan kontratadun langileak prestakuntza eta informazioa ematea.
  - 2008rako aurreikusitako arrisku psikosozialen prebentzio programan gomendatutako neurriak gauzatzea.
  - Kanpo indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa abian jartzea.
  - Prebentzio arloko hitzarmenak zein beste hainbat arlotakoak berritzea.

### 6. Erakundeari atxikitako ondasun higiezinak behar bezala mantentzeko behar diren ekintzak ezartzea eta kontrolatzea Arabako Foru Aldundiko Ondasun, Arkitektura eta Mantentze zerbitzuekin elkarlanean.

- Erakundeari atxikitako higiezin zerrenda eguneratuta mantendu da, lurren eta higiezin balorazioa bereiziz, eta horiek eta haien instalazioak eta ekipoak egoera egokian mantentzeko beharrezkoak diren gastuak egin dira.
- Ondare ondasunen segurtasunari dagokionez, larrialdietako planak eguneratuta mantendu dira, langilearentzat gaur egun dauden prebentziorako eta suak itzaltzeko baliabideen prestakuntza eta trebakuntzarako ikastaroak egin dira, simulazioen bitartez, eta zentroetan segurtasun kotak handitzen saiatu dira.
- 1.000 eurotik gorako balioa duten elementu guztien inbentarioaren jarraipena egin da,

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

plazas ofertadas.

- Con referencia a la negociación del Acuerdo Regulador del I.F.B.S. y del Convenio Colectivo de INDESA para 2.008-2.011, hay que destacar que este último -al final del ejercicio- está prácticamente cerrado y únicamente pendiente de firma.
- Con referencia a la prevención de riesgos laborales en el IFBS e INDESA, se han realizado las acciones previstas para 2.008:
  - Formación e información a los/as delegados/as de prevención y así como a las personas funcionarias y laborales.
  - Realización de las medidas recomendadas en el programa de prevención de riesgos psicosociales previstas para el ejercicio.
  - Puesta en funcionamiento del Protocolo de actuación ante la violencia externa.
  - Renovación de los convenios en materia de prevención, etc ...

### 6. Establecimiento y control, en coordinación con los Servicios de Patrimonio, Arquitectura y Mantenimiento de la Diputación Foral de Álava, de las acciones necesarias para mantener correctamente los bienes inmuebles afectos al Instituto.

- Se ha mantenido actualizada la relación de inmuebles adscritos al Instituto separando la valoración de los terrenos y los inmuebles y se han realizado las acciones de gastos necesarias para su mantenimiento en correcto estado, así como sus instalaciones y equipos.
- Respecto a la seguridad de los Bienes Patrimoniales, se han mantenido actualizados los Planes de Emergencia, realizando cursos de formación y adiestramiento para el personal en el uso y utilización de los medios de prevención y extinción existentes, mediante la realización de simulacros, tratando de aumentar las cotas de seguridad en los centros.
- Se ha realizado el seguimiento del inventario de contenidos para todos los elementos de valor

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

erakundearen zerbitzuak kudeatzeko zentro bakoitzean.

### 7. Arabako Lurralde Historikoan azaldu diren gizarte beharrianak eta egin diren zerbitzu eskaerak aztertzea, horiek guztiak asetzeko beharko diren baliabideak planifikatu eta programatu ahal izateko.

2008. urtean aurretiatzko ikerketak eta txostenak egin dira, eta, era berean, aurreko ekitaldian hasitako azterlanak burutu dira. Zehazki, honako azterketa hauek egin dira:

- Hurrengo ikerketak egin dira:
  - GOFErekin hitzarmena edo kontratua sinatuta duten erakundeetako kostuen analisia.
  - Prezio publikoen konparazio azterlana eta egungo eredu aldatzeko proposamenak.
  - Arabako LHn eta EAE osoan aplikatzen diren prestazio ekonomiko osagarrien konparazio analisia.
  - Aiaraldeko adinekoen gizarte premiak (Laudio eta Amurrio udalerrriak).
  - Ariznabarra, Arana eta Txagorritxu izeneko adinekoen egoitzetan egindako elikadura azterlanak.
  - Gaixotasun oso larriak eta gaitz sendaezinak dituzten askatasunik gabeko pertsonen premiak.
- 2007. urtean egindako ikerketak aztertu dira:
  - Homofobia eta Transfobia Araban.
  - Araban arrisku edo babes gabezia egoeran dauden adingabe eta nerabeen Diagnostikoa.
  - Arabako LHn Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonak.
- Txosten hauek egin dira:
  - Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

unitario superior a 1.000 euros y para cada uno de los centros de gestión de servicios del instituto.

### 7. Analizar las necesidades sociales existentes y las demandas de servicios expresadas en el Territorio Histórico de Álava, a fin de planificar y programar los recursos necesarios para la satisfacción de las mismas.

Durante el año 2.008 se realizaron las investigaciones e informes previstos, al tiempo que se finalizaron los estudios iniciados en el ejercicio anterior. En concreto, los trabajos desarrollados fueron los siguientes:

- Se han realizado las siguientes investigaciones:
  - Análisis de Costes en las Entidades sujetas a Convenio o Contrato con el IFBS.
  - Estudio comparativo de Precios Públicos y Propuestas para la modificación del modelo actual.
  - Análisis comparativo de Prestaciones Económicas complementarias aplicadas en el T.H. de Álava y en el conjunto de la CAV.
  - Necesidades Sociales de las Personas Mayores de Ayala (Municipios de Llodio y Amurrio).
  - Estudio Nutricional realizado en las Residencias de Personas Mayores de Ariznabarra, Arana y Txagorritxu.
  - Necesidades de las personas en situación de privación de libertad con enfermedades muy graves y padecimientos incurables
- Se ha procedido al análisis de las investigaciones finalizadas en el año 2007:
  - Homofobia y Transfobia en Álava.
  - Diagnóstico de los Menores y Adolescentes en Riesgo o Desprotección en Álava.
  - Personas Beneficiarias de Renta Básica en el T.H. de Álava.
- Se han realizado los siguientes informes:
  - Informes evolutivos seguimiento Ley

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko Legearen jarraipenari buruzko bilakaeraren txostenak.

- Demografiaren gaineko dosierra, 2008
- Ezintasunen Erregistroari buruzko txostena, 2008
- INDESAren txostena, 2008
- Arabako atzerritarren populazioa, kuadrillen arabera.
- Alto del Prado egoitzako erabiltzaileen senideentzako gogobetetasun inkesta.
- Ararteko eta Batzar Nagusietarako txostenak egitea (halakorik eskatu dutenean).
- Plangintzari dagokionez, hainbat jardueraren ebaluazioan edota lan batzordeetan parte hartu da; hona zein izan diren:
  - III. Gazte Plana (Eusko Jaurlaritza)
  - Boluntariotzaren I. Euskal Plana (Eusko Jaurlaritza)
  - IV. EGPP (Emakunde)
  - Emakumeen eta Gizonen Arabako II. Foru Plana (AFA)
  - Familiaren Euskal Plana (Eusko Jaurlaritza)
  - Inmigrazioaren Foru Plana (AFA)
  - Gizarteratzeko Euskal Plana (Eusko Jaurlaritza)
  - Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (Eusko Jaurlaritza)
  - Plan Estrategiko Soziosanitarioa (Kontuen Euskal Epaitegia)
  - Estatistikaren Euskal Planaren Batzordea (EUSTAT)
  - Zerbitzu Zorroari buruzko Dekretuko Batzordea (Eusko Jaurlaritza)
  - Adinekoen Arloko Udako Kontseilua (Gasteizko Udala)

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE  
BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

Promoción Autonomía Personal y Atención a la Dependencia

- Dossier demográfico 2.008
- Informe Registro Minusvalías 2008
- Informe INDESA 2008
- Población Extranjera en Álava por Cuadrillas.
- Encuesta de Satisfacción a familiares de Personas residentes en la Residencia Alto del Prado.
- Realización de diferentes Informes para el Ararteko, Juntas Generales (a demanda).
- En el área de la Planificación, se ha participado en la evaluación y/o en las comisiones de trabajo de diferentes actividades:
  - III Plan Joven (Gobierno Vasco)
  - I Plan Vasco de Voluntariado (Gobierno Vasco)
  - IV PAPME (Emakunde)
  - II Plan Foral de Mujeres y Hombres de Álava (DFA)
  - Plan Vasco de Familia (Gobierno Vasco)
  - Plan Foral de Inmigración.(DFA)
  - Plan Vasco de Inserción (Gobierno Vasco)
  - Plan Estratégico de Servicios Sociales (Gobierno Vasco).
  - Plan Estratégico Socio-Sanitario (Tribunal Vasco Cuentas)
  - Comisión Plan Vasco Estadística (EUSTAT)
  - Comisión Decreto Cartera de Servicios (Gobierno Vasco)
  - Consejo Municipal Sectorial de Mayores (Ayto. Vitoria-Gasteiz)

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

### 8. GOFEn menpe dauden zentroen eta programen etengabeko hobekuntzarako zikloak ezartzea, gizarte zerbitzuen erabiltzaileei eskainitako zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko.

2008. urtean helburu hori betetzeko zenbait ekintza egin ziren:

- Ezinduen Arloan prestakuntza eta kalitate prozesua gauzatzeko, hau da, ezintasuna duten pertsonen egoitzetarako Jardunbide Onen gaineko Gidaliburua eta bi gida berezi egiteko SIISekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena luzatu zen.
- Familietan Esku Hartzeko Programa ebaluatu zen, oinarritzko gizarte zerbitzuen arloan (babesgabetasun arina).
- Adingabearen eta Familiaren Arloko Hasierako Harrerako Etxeak ebaluatu ziren.
- Kexa eta Iradokizunen prozedura egiteko proposamena diseinatu zen.
- Arabako Lurralde Historikoko Gizartegintzan Etika Batzordea diseinatu eta koordinatu da.

### 9. GOFEn kanpoko komunikazio sistemak eta bideak hobetzea, herritarrek eta erakundeek egun dauden gizarte baliabideak eta haiek jasotzeko bideak zeintzuk diren jakin dezaten.

Helburu hori betetzeko, azaldutako ekintza guztiak bete dira. Besteak beste, hauek aipa daitezke:

- “Gizarte Zerbitzuen Oinarritzko Legeria” izeneko txostena eguneratu eta berori GOFEn zerbitzarian sartu da, langile guztientzat eskuragarria izan dadin.
- GOFEn web orriaren dakarrena berrikusi eta orri berriak hasiera batean diseinatu dira.
- “Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokia” diseinatu eta abiarazi da.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE  
BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

### 8. Establecer ciclos de mejora continua de los diferentes centros y programas dependientes del IFBS para la mejora permanente de la calidad de los servicios prestados a las personas usuarias de los Servicios Sociales.

Durante el año 2.008 se realizaron diferentes acciones para el cumplimiento de este objetivo, las cuales se concretaron en:

- Se prorrogó el convenio de colaboración con el SIIS, para desarrollar un proceso de formación y calidad en el área de Personas con Discapacidad, para la elaboración de un Manual de Buena Práctica para Residencias de Personas con Discapacidad y dos Guías Específicas.
- Evaluación del Programa de Intervención Familiar en el ámbito de los Servicios Sociales de Base (desprotección leve).
- Evaluación de los Hogares de Primera Acogida del Área de Menor y Familia
- Se ha diseñado una propuesta para la elaboración de un Procedimiento de Quejas y Sugerencias.
- Se ha llevado a cabo el Diseño y Coordinación de un Comité de Ética Asistencial en Intervención Social del Territorio Histórico de Álava.

### 9. Mejorar los sistemas y formas de comunicación externa del IFBS para facilitar el conocimiento, por parte de la población, instituciones y entidades de los recursos sociales existentes y de la forma de acceso a los mismos.

Para el cumplimiento de este objetivo, se ha cumplido con todas las acciones señaladas. Entre las realizaciones, se pueden destacar las siguientes:

- Actualización del dossier “Legislación Básica en Servicios Sociales” e inclusión en la misma en el servidor del IFBS, facilitando su acceso al conjunto de la plantilla.
- Revisión del contenido de la página Web del IFBS y diseño inicial de nueva página.
- Diseño y Puesta en marcha del “Observatorio de Servicios Sociales de Álava”.

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

- AFAko Gizarte Zerbitzuen Gidaliburu Praktikoaren eguneratu da, Gizarte Politika arloko edukiei dagokienez.
- Liburuxka hauek argitaratu dira:
  - Sallurtegi Egoitzaren liburuxka
  - Amurrio Egoitzaren liburuxka
  - Salvatierra Egoitzaren liburuxka
  - Etxebidea Egoitzaren liburuxka
  - Nazioarteko Adopzioarako Gidaliburua egiteko lanak koordinatu dira.
  - Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Gidaliburua eguneratu eta berriro argitaratu da.
  - Lehen Urteetako Arretari buruzko Liburuxka diseinatu da: Gurasoentzako Gidaliburua.
  - El rincón del cuidador izeneko aldizkaria.
  - INDESAREN liburuxka.
  - Taxi Bonuak
  - ATECEren egutegia
- Ikus-entzunezko material hauek egin dira:
  - GOFeko zentroen gaineko argazki erreportaje osagarria
- Agiri hauek egin eta argitaratu dira:
  - GOFeren 2008ko programen eta zerbitzuen gidaliburua
  - Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren 2007ko memoria
  - Liburu hau argitaratzen lagundu da: “Adopción Internacional: ¿cómo evolucionan los niños, las niñas y sus familiares?”
  - Gizarte Zerbitzuen Behatokiaren aldizkaria

**10. Sailaren dokumentazio zerbitzua mantendu eta eguneratzea. Sailak funtzionatzeko behar duen informazioa kudeatzeko gaitasuna izango du zerbitzu horrek.**

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE  
BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

- Actualización de la Guía Práctica de Servicios Sociales de la DFA, en los contenidos referentes al área de Política Social.
- Se procedió a la edición de los siguientes folletos:
  - Folleto Residencia Sallurtegi
  - Folleto Residencia Amurrio
  - Folleto Residencia Salvatierra
  - Folleto Residencia Etxebidea
  - Coordinación de trabajos para la elaboración de una Guía de Adopción Internacional.
  - Actualización y reedición de la Guía para combatir la Violencia contra las Mujeres.
  - Diseño del Folleto Atención Temprana: Guía para Madres y Padres.
  - Revista El rincón del cuidador.
  - Folleto de INDESA.
  - Talonarios Bono-Taxi
  - Calendario ATECE
- Se elaboró el siguiente material audiovisual:
  - Reportaje fotográfico adicional Centros IFBS
- Se procedió a la elaboración y publicación de los siguientes documentos:
  - Guía de Programas y Servicios del IFBS 2.008
  - Memoria del Departamento de Política Social y Servicios Sociales 2.007
  - Colaboración en la publicación del Libro “Adopción Internacional: ¿cómo evolucionan los niños, las niñas y sus familiares?”.
  - Boletín del Observatorio de Servicios Sociales

**10. Mantener y actualizar un servicio de documentación del Departamento que soporte la información necesaria para su funcionamiento.**

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

Hurrengo jarduerak egin dira:

- IMSERSOko “Adinekoen behatokiarekin” lankidetzan aritu da.
- Gizarte zerbitzuetako udal mailako gastuaren 2008ko estatistikan parte hartu da (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak).
- Gizarte zentro eta zerbitzuen 2007ko estatistikan parte hartu da (EUSTAT eta Foru Aldundiak).
- AFAko Erregistro Nagusiaren informazio eskaerei erantzun zaie.
- Estatu mailako ezinduen datu-basearen estatistikan parte hartu da.
- Umeen tratatu txarren jakinarazpenerako datu-basearen estatistikan parte hartu da.
- INEren, EUSTATen... galdetegiak bete dira.

### 11. Dokumentazio eta liburutegi zerbitzuaren eguneratze sistematikoarekin jarraitzea.

2008. urtean gizarte zerbitzuetako gaietako dokumentazioa mantentzeko eta kudeatzeko lanekin jarraitu da. Horri dagokionez, ekintza hauek egin dira, besteak beste:

- Fundación Eguía Careaga erakundearekiko lankidetzatza teknikoari eutsi zaio, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekin izenpetutako hitzarmenaren luzapena sinatu da. Hitzarmen horren helburua izan da dokumentazioaren arloan ekintza bateratuak egitea 2008ko ekitaldian.
- Gure bibliografía bildumaren garbiketa egin da.
- Mota guztietako liburuak, aldizkariak, bideoak, CDak eta literatura grisa katalogatu eta sailkatu dira, eta ondorioz, 314 dokumentu berri informatizatu dira. 2008. urtearen amaieran 12.000 dokumentu zeuden erregistratuta.
- Aldizkako argitalpenen harpidetzak berriro dira;

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE  
BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

Se han desarrollado las siguientes actividades:

- Colaboración con el “Observatorio de Personas Mayores” del IMSERSO.
- Participación en la Estadística del gasto Municipalizado de Servicios Sociales 2.007 (Gobierno Vasco y Diputaciones Forales).
- Participación en la Estadística de Centros y Servicios Sociales 2.007 (EUSTAT y Diputaciones Forales).
- Contestación a peticiones de información del Registro General DFA.
- Participación en la estadística de Base de Datos de Discapacidad Estatal.
- Participación en la Estadística de Base de Datos de Notificación de Maltrato Infantil.
- Cumplimentación de cuestionarios procedentes del INE, EUSTAT ...

### 11. Proseguir las tareas de actualización sistemática del servicio de documentación y biblioteca.

Durante el año 2.008 se ha continuado con las tareas de mantenimiento y gestión de la documentación en materia de servicios sociales. A este respecto se han realizado, entre otras, las acciones siguientes:

- Se mantuvo la colaboración técnica con la Fundación Eguía Careaga, procediéndose a la firma de la prórroga del convenio suscrito con el Centro de Documentación y Estudios SIIS para el desarrollo de acciones conjuntas en el campo de la documentación para el ejercicio 2008.
- Se ha realizado el procedimiento de expurgo en nuestra colección bibliográfica.
- Se ha catalogado y clasificado todo tipo de libros, revistas, videos, CDs y literatura gris, de lo cual ha resultado la informatización de 314 nuevos documentos, llegando a finales de 2.008 al registro de 12.000 documentos.
- Se han renovado las suscripciones a las

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

beraz, aldizkako argitalpenen datu-basean 107 aldizkari izenburu daude, eta horietatik 90 bilduma irekiak dira. Aldizkarien 6 izenburu osoen katalogazio analitikoak egin da.

- Saileko eta bestelako erakundeetako hainbat zerbitzuko eta langile teknikok eta gizarte zerbitzuko gaitan interesa duten pertsonen informazioa jakiteko egin dituzten eskaerak argitu dira (argibide eskaerak, agirien mailegua eta liburutegien arteko mailegua). 2008. urtean, guztira 489 argibide eskaerari erantzun zaie.

### 12. GOFeren Langileen Trebakuntza eta Birziklapenerako Plana prestatzea eta garatzea, plantilla etengabe egokitzeko gizarte zerbitzuen espezializazio prozesuaren eta kalitate eskakizunen ondoriozko beharretara.

Prestakuntzaren helburuak langileen trebakuntza maila areagotzera bideratuta egon dira, hartara, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiten dituen zerbitzuen kalitatea hobetzen lagutzeko.

Kudeaketa arloekin lankidetzan, Idazkaritzak honako ekintza hauek antolatu eta koordinatu ditu:

- Aurreko ekitaldian IVAPekin lankidetzan GOFeko langileen prestakuntza beharrei buruzko diagnostikoa egiten amaitu da, eta hori oinarritzat hartuta epe ertainerako Prestakuntza Plana gauzatuko da.
- 2008ko ekitaldian GOFeren eta INDESAREN jarduera arloetako langileei zuzendutako 29 barneko prestakuntza jarduera egin dira. Ikastaro horietan guztira 483 pertsonak hartu dute parte.
- Halaber, beste zenbait erakundek antolatutako 61 kongresu, ikastaro edo mintegitan parte hartu duten 98 pertsonaren jardueraren dokumentu eta aurrekontu koordinazioa eta jarraipena egin dira.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

publicaciones periódicas, con lo que la base de datos de publicaciones periódicas contó con 107 títulos de revistas, de los cuales 90 son colecciones abiertas. Se realiza catalogación analítica de 6 títulos completos de revistas.

- Se han resuelto las demandas de información (consultas, préstamo de documentos y préstamo interbibliotecario) realizadas, tanto desde los diferentes servicios y personal técnico del Departamento, como de otras instituciones de personas interesadas en materia de servicios sociales. En el año 2.008 se resolvieron un total de 489 consultas.

### 12. Elaborar y desarrollar el Plan de Formación y Reciclaje del Personal para la permanente adecuación de la plantilla del IFBS a las necesidades derivadas del proceso de especialización de los Servicios Sociales y de las exigencias de calidad en su presentación.

Los objetivos de la formación han estado encaminados a aumentar el nivel de capacitación de los/as trabajadores/as, para contribuir de esta manera a la mejora de la calidad de los servicios prestados por el Instituto Foral de Bienestar Social.

En colaboración con las áreas de gestión, la Secretaría ha organizado y coordinado las siguientes acciones:

- Durante el ejercicio se finalizó el Diagnóstico de Necesidades Formativas de la plantilla del IFBS en colaboración con el IVAP, a partir del cual se elaborará el Plan de Formación a medio plazo.
- A lo largo del ejercicio 2008 se han realizado 29 actividades formativas internas dirigidas a trabajadores/as de las diferentes áreas de actividad del IFBS e INDESA con una asistencia total de 483 personas.
- Así mismo, se efectuó la coordinación, el seguimiento documental y presupuestario de la asistencia de 98 personas a 61 Congresos, Cursos o Seminarios organizados por otras Entidades.

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

- Elkarrekin edo beste erakunde batzuek egindako prestakuntza jarduerak antolatzen parte hartu da (dirulaguntzaren bidez), horiek antolatzeko laguntzen deialdia eginez eta gerora laguntza horiek ebatziz. 25 elkarrekin edo erakunde publikok edo pribatuk antolatutako 30 ikastaro egiteko dirulaguntza eman da.
- Alzheimer gaixotasunarekin zerikusia duten prestakuntza jarduerak antolatzen parte hartu da (dirulaguntzaren bidez); horiek antolatzeko laguntzen deialdia eginez eta gerora laguntza horiek ebatziz; Etxez Etxeko Zerbitzua eskaintzen duten enpresei eta egoitza pribatuei zuzendutakoak dira. 2 enpresari eman zaizkie laguntzak, 2 ikastaro antolatzeko.
- Zenbait ikastetxetako ikasleek praktikak egiteko 10 hitzarmenen jarraipena egin da.
- Jardunaldi hauek antolatu dira:
  - "Gizarte bide – Gizarte Zerbitzuen I. Topaketa" antolatu da.
  - Elkarrekin zuzendutako Jardunaldia antolatu da (Mendekotasunari buruzko Legea).
  - "Mendekotasunari laguntzeko zerbitzuak" izeneko jardunaldien antolaketan (Edad y Vida fundazioa) eta Fundación Laboral San Prudencio fundazioak antolaturiko Adinekoen XI. Foroan parte hartu da.

### 13. Arabako gizarte zerbitzuak baimendu, erregistratu eta ikuskatzea.

- 2008. urtean baimen hauek tramitatu eta ebatzi dira:
  - Aldez aurretiko baimena: 3 egoitza
  - Jarduteko baimena: 2 etxebizitza komunitario
  - Egoitza zentroyen titulartasunaren aldaketa: 3 zentro

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

- Se ha participado en la organización (vía subvención) de actividades formativas desarrolladas por asociaciones o por otras entidades e instituciones, mediante la convocatoria y posterior resolución de ayudas para la organización de las citadas acciones, concediéndose subvención para la realización de 30 cursos organizados por 25 asociaciones, o entidades públicas/privadas.
- Se ha participado en la organización (vía subvención) de actividades formativas relacionadas con la enfermedad de Alzheimer mediante convocatoria y posterior resolución de Ayudas para empresas prestatarias del Servicio de Ayuda a Domicilio y Residencias Privadas, concediéndose ayudas a 2 empresas para la organización de 2 cursos.
- Se ha efectuado el seguimiento de 10 Convenios en prácticas de alumnado de diferentes Centros Educativos.
- Se organizaron las siguientes Jornadas:
  - Organización del "I Encuentro de Servicios Sociales "Gizarte bide"
  - Organización de una Jornada dirigida a las Asociaciones (Ley de Dependencia)
  - Participación en la organización de las Jornadas "Servicios de Atención a la Dependencia" (Fundación Edad y Vida.) y en el XI Foro de Mayores, organizado por la Fundación Laboral San Prudencio.

### 13. Proceder a la autorización, registro e inspección de los servicios Sociales del Territorio Histórico de Álava.

- En el transcurso del año 2.008 se han tramitado y resuelto las siguientes autorizaciones:
  - Autorización previa: 3 Residencias
  - Autorización de funcionamiento: 2 Viviendas Comunitarias
  - Cambio de titularidad de centros residenciales: 3 centros

## 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU  
ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 01 ZERBITZU OROKORRAK

- 39/2006 Legean ezarritako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari buruzko araudia onartu duen apirilaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 24/2008 Foru Dekretuaren arabera, 44 plaza egiaztatu dira 4 etxebizitzatan.
- Urteroko ikuskatzailetzako bisitak egin dira jarduerarako baimena daukaten zentro pribatu guztietan, kudeaketa pribatuko zentro publikoetan eta jarduerarako behin-behineko baimena zuten zentroetan.
- Ikuskatzailetzako bisiten ondorioz 106 ikuskatzailetzako akta egin dira eta ikuskatzailetzako jardunaren ondorioz txosten egokiak egin dira.
- Egoitza publiko eta pribatuetan daudenen senideen 38 kexa jaso dira. Zehapen espedienteak ireki aurretik 8 informazio espediente izapidetu dira eta ikuskatzailetzako jardunaren ondorioz 3 zehapen espediente ebatzi dira.
- Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroaren Atalean 9 inskripzio egin dira. Beraz, aipatutako Erregistroaren programa informatikoan erakunde, zentro eta zerbitzu guztiak sartzen bukatu da.
- Administrazio baimenen bereizgarriak banatu zaizkie zentroeiei, jarduerarako baimena eman zaien kasuetan.
- Egoitza zentro eta eguneko zentro berriak abian jartzeko eskatzen diren baldintzei buruz informatzeko 140 eskaerari egin zaie arreta, eta horri buruz egindako dokumentazioa eman da.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE  
BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 01 SERVICIOS GENERALES

- En función del Decreto Foral 24/2.008, del Consejo de Diputados de 8 de Abril, que aprueba la normativa reguladora de la Prestación Económica Vinculada al Servicio prevista en la Ley 39/2.006, se han acreditado 44 plazas en 4 Viviendas.
- Se han llevado a cabo las visitas de inspección anuales a todos los centros privados que cuentan con autorización de funcionamiento y a los centros públicos de gestión privada, así como a aquellos que tenían autorización provisional de funcionamiento.
- Se han levantado 106 actas de inspección como resultado de las correspondientes visitas de inspección y se han elaborado los pertinentes informes como producto de la actuación inspectora.
- Se han recibido 38 quejas de las familias de personas residentes de diferentes centros públicos y privados, se han tramitado 8 expedientes informativos previos a la apertura de expediente sancionador y resuelto 3 expedientes sancionadores derivados de actuaciones inspectoras.
- Se han practicado 9 inscripciones en la Sección de Entidades del Registro Foral de Servicios Sociales, finalizando la inclusión de todas las entidades, centros y servicios en el programa informático del citado Registro.
- Se han distribuido distintivos de autorización administrativa a los centros a los que se ha concedido autorización de funcionamiento.
- Se han atendido 140 peticiones de información sobre los requisitos que se exigen para la puesta en funcionamiento de nuevos centros residenciales y centros de día, entregando la documentación orientativa elaborada al respecto.